

Jazz gauak Iruñean

EMANALDIA

Jazz kontzertua eta *Jam session* irekia dugu gozagai, astearte gauetan (irailtik ekainera bitartean), Iruñeko Garazi tabernan.



Julen Leuza Izkue

@JulenLeuza

Asteartea da eta Iruñeak ez du kultur eskaintza handirik gauerako, ohiko moduan. Urrun geratu dira egunero rock eta pop kontzertuak aditzeko aukera zegoen garaiak, diotenez, guk ez baititugu ezagutu. Arratsalde lan egiten dugunok ez dugu arazo handiegirik astean zehar gauetz kontzertuak aditzeko eta bide batez zerbeza pare bat hartzeko. Hala bada, lanetik atera eta afaltzeko geratu gara alde zaharrean. Gaur hasiko dira berriro jazz kontzertuak Garazi tabernan, eta joatea erabaki dugu. Iaz arte asteartez gain ostegunetan ere bazegoen jazz musika entzuteko aukera Infernu tabernan (Kaldereria karrikan biak), baina azken *Jam session* hau bertan behera geratu zen parte hartzaile nagusiek hiria utzi zutenean. Ez da harrizkoa Iruñean jazz musikari ugari egotea, goi mailako kontserbatorioan espezialitate honetako ikasketak ematen direla kontuan hartuz (hau bai dela harrizkoa).

Formatua beti da bera: lehen txandean kontzertua eta gero *Jam session* parte-hartzailea. Gaurkoan kontzertura datorren hirukotea ez da makala: Alberto Arteta saxoan, Kike Arza kontra-



baxuan eta Juanma Urriza *Boli* baterian. Oholtzara igo dira eta hasi da Arza kontrabaxuarekin marrazki eta motibo azkarrak jotzen. Inprobisazio hutsa dela uste genuenean, sartu dira beste biak, batera. Lehen pieza amaitu eta gero eskerrak eman dizkiote gerturatu den publikoari (taberna bete dago) eta azaldu dute haien obra propioak direla, entseatu gabe jotzera animatu direla gehituz. Entseatu edo ez, kalitatea muturrekoa da. Egitura ezberdinak antzematen dira piezetan, guztietan inprobisazioari leku handia emanez. Estiloa ez da klasikoa, armoniek nirea bezalako entzumen tradizionala momentu oro engainatzen dute, eta egia esan adibidez jazz estandarrekin eginiko *Jam session* bat baino askoz ere zailagoa da entzuteko hau, baina joleen gaitasun musikalak entzulea kontzertuan guztiz murgiltzea lortzen du, bateria-jolearen kasuan zerbait hipnotikora helduz. Ordu bete inguru egon eta gero, publikoaren estimuarekin amaitu dute kontzertua.

Tarte bat pasata, *Jam session*ari eman zaio hasiera. Orokorrean kontserbatorioko ikasleak dira parte hartzaileak, baina beti dago handik edo hemendik

etorri den musikaririk. Aurpegi asko ezagunak dira, asteartero hitzordura huts egiten ez dutenak. Baxua (kontrabaxua gaur), bateria eta gitarra da oinarria normalean, eta gero teklatura eta haize instrumentuak gehitzen dira. Denen artean estandar ezberdinak aukeratzeko dituzte (40-50 hamarkadako *be-bop* klasikoak izaten dira gehienak) eta gaia jotzen dute, gaiaren akordeen gainean bakoitzak inprobisazio tarte egiten duelarik, hartara denek berriro gaiarekin amaitzeko. Inprobisazio munduak badu mirari bat, gaia hamai-ka aldiz entzun baduzu ere soloek beti emango dizutela zerbait berria.

Horrela bada, gaua luze egiten da astearte gauetan taberna honetan. Hainbat faktorek xarma handia ematen diote, adibidez Iruñea bezalako hiri txiki batean, non musika modernoak ez duen inoiz garrantzi handirik eduki, halako musika eta musikariak topatzea, jotzeko gogoz beti. Hasieran aipaturiko kultur eskaintza urriak garrantzia handia ematen dio dagoen edozeri, eta honez gain, masifikatu gabeko edozein fenomeno beste modu batean miresten da beti. Musikak gauza liluragarri hauek ditu. ■